



**SEGURTASUNEKO SAILBURUAREN 2025EKO
MAIATZAREN 2KO AGUNDUAREN BIDEZ (EHAA, 94.
ZK., 2025EKO MAIATZAREN 21EKOA) DEITUTAKO
HAUTAKETA-PROZESUAK, SEGURTASUNEKO
ADMINISTRAZIOKO LANGILE LAN-KONTRATUDUNEN
EREMUEN MENDEKOAREN ETA OSTALARITZAKO
LAGUNTZAILEAREN LANPOSTUAK BETETZEKO**

**BIGARREN AZTERKETA – ZATI ESPEZIFIKOA
(Euskalduna Jauregia. Bilbo)**

AZTERKETA EGITEKO ARGIBIDEAK

Azterketa hasi aurretik

Mahai gainean, honako hauek aurkituko dituzu:

- Gutun-azal zuri bat, azterketan zeure burua identifikatzeko erabiliko diren eranskailuekin.
- "Izangaia identifikatzeko orria"
- Azterketa egiteko jarraibideen orria

Azterketa identifikazio-orrian idatzi behar duzu:

- Zure izen abizenak
- Zure NAN zenbakia
- Bete X batez parte hartzen ari zaren lanpostua edo lanpostuak
- Sinadura
- Lauki urdinean itsatsi beharko duzu gutun-azal zurian aurkituko duzun eranskailua.

Azterketa grapatuta dago

- Ez kendu grapa
orrien ordena alda ez dadin.

Nola egin behar duzu azterketa

- Azterketa 18 galderaz osatutako galdetegia da.
- Azken hiru galderak erreserbakoak dira.
Hauek ere erantzun egin behar dira.
Baina nota kalkulatzeko erabiliko dira
epaimahaiak beste galderaren bat ezeztatzen
badu bakarrik.
- Galdera bakoitzarentzat erantzun zuzen bakarra dago.
- Erantzun okerrekin eta zuriz emandako erantzunek ez
dute punturik kentzen.
- X batez markatu erantzun zuzenaren laukitxoa.

Adibidez:

**zein kolorek osatzen dute Euskadiko bandera edo
Ikurrina?**

- ☐ a) Gorria eta zuria
- ☒ b) Gorria, zuria eta berdea
- ☐ c) Gorria, zuria, berdea eta urdina

Erantzun bat markatu baduzu eta aldatu egin nahi baduzu:

1. Ezeztatu erantzuna, gaizki erantzundako laukitxoak guztiz betez.
2. X batekin markatu erantzun berria.

Zein kolorek osatzen dute Euskadiko bandera edo Ikurrina?

- ☐ a) Gorria eta zuria
- ☒ b) Gorria, zuria eta berdea
- ☐ c) Gorria, zuria, berdea eta urdina

Berrir nahastu bazara eta ezeztatu duzun erantzun bat berrir markatu nahi baduzu, eskatu azterketaren koaderno berri bat eta zure erantzunak berrir markatu. Aurreko azterketa utziko dizugu erantzunak koaderno berrira pasatzeko.

Behar baduzu, erreferentziazko pertsonak lagunduko dizu erantzunak koaderno berrira pasatzen

Erantzuna okerra izango da

- Bi erantzun ematen badituzu galdera batean.
 - ☒ a) Gorria eta zuria
 - ☒ b) Gorria, zuria eta berdea
 - ☐ c) Gorria, zuria, berdea eta urdina

- X marka bezelakoak ez direnak egiten badituzu.

Adibidez:

- ☒ a) Gorria eta zuria
- ☐ b) Gorria, zuria eta berdea
- ☐ c) Gorria, zuria, berdea eta urdina

Azterketa egiteko izango duzun denbora, ordu eta erdikoa izango da.

Ordu erdi falta denean esango dizugu azterketa amaitzeko, eta 5 minutu falta direnean ere bai.

Azterketa hasi ondoren, ezin izango zara aretotik atera 10 minutu igaro arte.

Azterketa dirauen bitartean

- Mugikorra itzalita izan behar duzu.
- Ezin da hitz egin.
- Zer egin zerbait behar baduzu?

1. Zalantzaren bat baduzu edo laguntza behar baduzu, altxa eskua eta zure erreferentziako persona inguratuko da eta lagunduko dizu.

2. Komunera joan nahi baduzu, altxa eskua eta zure erreferentziazko pertsonak esango dizu

nola joan zaitezkeen komunera.

3. Azterketa amaitzen duzunean,

eskua altxatu eta azterketa jasotzeaz arduratuko den pertsona hurbildu egingo da, eta azterketa Koadernoan jasoko du.

Koadernotxoa jaso ondoren, gelatik irten ahal izango zara, eta ausaz egokitu zaizun identifikazio-zenbakia eraman beharko duzu.

Azterketa amaituta

Azterketa zuzendu ondoren, zure azterketaren kopia bat eta zuzenketa-txantiloia bidaliko zaizkizu LEPea eman duzun helbide elektronikora.

Azterketara joan izanaren egiaztagiria behar baduzu, eskatu zure erreferentziako pertsonari, eta emango zaizu.